# BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZAKO EUSKAL PLANAREN (2008-2011) BIRFORMULAZIOARI ALEGAZIOAK

**Gogoeta orokorrak:**

**- Aurkeztutako dokumentua ez da "hezkuntza plana", baizik eta dokumentu "erabat politikoa".** ETAren kontrako printzipioz osatutako dokumentu politikoa da eta konstituziozalea, biktimak ETAk eragindako biktimetara mugatzen duena, eta ekarpenik egiten ez duena, hezkuntza ezaugarrietara nola itzuli behar den esateko orduan. Ikuspegi politikoa, zeina gordina den, hezkuntzarekin bateragarri egitea falta du.

- Ez da argi geratzen, 38 orrialde dituen dokumentu hori plan osoaren edo zati baten ordezkoa den. Berrirakurketaz hitz egiten da, baina ez dakigu aurreko dokumentuak indarrean segitzen duen beste auzi guztiei dagokienez, biktimen unitatetik harago. Gobernuak zehatz-mehatz argitu egin behar du aurreko planetik zer geratzen den eta zer ez eta, beraz, FINKATUTAKO plana exijitzen dugu; hau da, dokumentu bakar baten plan osoa eskuratzea. Urtebeteko gobernuaren ostean oinarrian diskurtso politikoa besterik ez den 38 orrialdeko dokumentua aurkeztea ez da zilegi. Dokumentua, gainera, ez da zehatza eta ez dago gobernu batek plana aurkezten duenean espero den mailara iristen.

**Sarrerari dagokionez**
**Sarrerako zatiak biktimen inguruan egun dagoen kontsentsu ñimiñoa hausten du. Lehen giza eskubideen defentsa eta indarkeria oro errefusatzen baziren ere, oraingo dokumentuan herri honetan bizi dugun egoeraren diagnosi politiko partzial eta alderdikoia egiten da.** Beraz, txarto hasi gara, gero. Bake Hezkuntza Planaren edozein moldaketak lorgarri den adostasun zabalenetik abiatu beharko lukeenez, ezinbestekoa da balorazio politiko oro saihetsi eta aurre-politikoan zentratzea; alegia, Giza Eskubideen defentsan eta indarkeria ororen gaitzespenean.

**Ez dugu ulertzen zergatik sartzen den Bake Hezkuntzaren Euskal Plana terrorismoaren kontrako borrokan**, bakerako hezkuntza hori baino askoz gehiago denean, testuan zehar etengabe errepikatzen den ikuspegi mugatu hori gainditzea beharrezkoa denean.

Tesi oso arriskutsu eta desegoki bat dago dokumentuan, asmo politiko argi batekin egina, zeinak terrorismoa erakundeen ikuspegi kritikoarekin lotzen duen. Testutik berehala kendu beharrekoa da hori, ez baita egia, eta, gainera, bake hezkuntzarekin batere zerikusirik ez baitu. Ikuspegi hori errazago lotzen da doktrinamendu politikoa bilatzen duen gobernu batekin, ezen ez bake hezkuntza bilatzen duenarekin baino. Begira bestela: "*es necesario recalcar que los derechos y libertades no existen, o son mera reivindicación, si no están ancladas en el Derecho, el respeto a la Ley y la defensa de las instituciones democráticas*"; edo "*introduce como novedad singular, convirtiéndola además en principio rector del mismo, la idea de que el no reconocimiento de las instituciones democráticas (…) abre el camino a las posiciones*

*totalitarias justificadoras de la violencia terrorista,*”. Horrelako esaldiek bake hezkuntzarako edozein planetatik kanpora behar dute.

**Ez dugu uste demokraziaren sinbolo nagusiena biktimak direnik;** biktimei izaera politikoa emateko ahalegin errepikatua da hori. “*el Gobierno está convencido de que la memoria de las víctimas del terrorismo constituye la defensa permanente de la tolerancia y la pluralidad política de la sociedad vasca, pues fueron asesinadas por representar de una forma u otra precisamente esa pluralidad, porque no encajaban en la visión uniforme y homogénea de los asesinos…*”. Esaldi hori, dokumentuan zehar, ETAk eragindako biktimez jarduteko baino erabiltzen ez dena, balorazio politiko hutsa da, alderdi konstituzionalistek baino partekatzen ez dutena. Esaldiaren hasieran argi geratzen da hori, “gobernuak uste osoa du” baitio, eta hori ustea baino ez da; iritzi politikoa, ez oinarri komuna.

Sarreratik jada, biktimek, geletan izango luketen presentzia zuzenarekin, gure herriaren elkarbizitzari egingo ei lieketen ekarpena aipatzen da, behin eta berriro. Baieztapen horrek ez du inolako oinarririk, ez zientifikorik ezta pedagogikorik. Gaiari buruzko iritziak baino ez dira —sutsuak, hori bai—, desio politikoa besterik ez dena egia objektibo bihurtzeko asmoz.

Eta, azkenik, terrorismoaren biktimei (ETArenak, funtsean: Testu guztian zehar ez dago aipamen bakar bat bera ere beste ezein talde armaturi, nahiz eta talde armatu guztien biktimak dauden biktimatzat aitortuak) zentraltasuna emateko obsesioak planetik kanpo uzten ditu motibazio politikoaren ondorioz bestelako giza eskubideak urratu zaizkien gainerako biktimak, eta bigarren mailan uzten ditu bestelako oinarrizko eskubideen urraketak. “*la sensibilidad especial que hemos ido atesorando con el tiempo respecto a la violencia terrorista, nos permite juzgar con mayor precisión el quebrantamiento de otros derechos fundamentales*” o “*la centralidad de las víctimas permite confrontar los efectos de la violencia terrorista a través de la aproximación y empatía con sus víctimas, posibilitando con ello una aproximación más certera y efectiva a todas las expresiones de violencia*”. Hau da, lehenengo ETAren biktimak dira, eta gero gainerako biktimak, beste indarkeriek eragindakoak. Ez dugu inondik inora bat egiten sufrimenduaren mailakatze horrekin, eta ez zaigu onargarria iruditzen horixe izatea Bake Hezkuntzarako planaren helburu nagusia.

**Arrazoien azalpena**

Birformulazio hau egiteko arrazoiak ematean, lehendabizi aipatzen da planak berak jasotzen zuela abian jarri eta urtebetera ebaluazioa egin beharra zegoela. Hala ere, ez da jasotzen orain arte egin diren ebaluazioak zein neurritan hartu diren aintzat, dokumentuan horien aipamenik ez delako agertzen. Ebaluazioen ondorioz gobernuak aldaketak egin dituela aipatzen da, baina ez du esaten zertan oinarrituta egin dituen. Kualitate lan-taldeak plangintza osoaz egindako balorazioa zein izan den ez da jasotzen. Ikasgeletan biktimak izatea ahalbidetu zuten programen edo unitate didaktikoen inguruan egindako kanpo-ebaluazioak ere ez dira aipatzen. Ebaluazio oso baikorra eta ona izan zen, eta bertan hitzez hitz hauxe jasotzen zen, besteak beste: “*lan saiootan, enpatia kontzeptua modu sakonean aztertzea eta indarkeriari indarkeriarekin ez zaiola erantzun behar ulertzeko joera lortu da*”; edo goraipatu egiten da “*biktimez nola hitz egin den; alegia, enpatia bilatuz*” goraipatzen da.

Hala ere, birformulazio dokumentuaren 32. orrialdean adierazten denez, "*unitatea ez da osoa, ez da zehatza, eta aldaketak egingo dira*". Zeintzuk dira horren arrazoiak, arrazoi pedagogikoak, ez politikoak? Eta oraindik larriagoa dena, ez da argitzen zeintzuk izango diren aldaketak eta, horrenbestez, gaur egun, plangintzako aldaketa nagusia biktimak zuzenean ikasgeletan egotea denean, ez dakigu helburua gauzatzeko zer egiteko asmoa dagoen eta zein oinarri pedagogiko hartu diren aintzat aldaketen irizpide nagusi bezala. Zein ebaluazioz ari den hizketan argitu beharko luke Gobernuak, eta, bere ebaluazioa eginda badauka, azaldu beharko luke zein den, nor den egilea eta zein diren ondorioak. Kontua da ez dagoela ezein ebaluazio, ezta irizpide pedagogikorik ere, birformulazioa edo unitate didaktikoetan egindako aldaketak arrazoitzen duenik.

Ondoren, birformulazioa arrazoitzeko orduan, gobernuak **testuinguruko elementu berriak** aipatzen ditu. Hala ere, giza eskubideen eta biktimen alorreko bi mugarri garrantzitsu ahazten ditu: Giza Eskubideen aurreko Zuzendaritzak aurkeztu zuen 'Arrazoi politikoetatik eratorritako giza eskubideen urraketen Biktimen Txostena'; eta 2009ko abenduaren 22an Giza Eskubideen Batzordean aho batez onarturikoa, hau da, alor horretan eginkizun dagoen lanari ekin egin behar zaiola eta Ganberara igorri behar direla eragindako kalteak ordaintzeko neurrien proposamena. Eta dokumentu horiek ahaztu egiten ditu, plangintza honetatik at utzi nahi dituelako eta, zehatzago esanda, ikasgeletan ez egotea nahi duelako. Hau da, "ikasgeletan biktimak egotea nahi dugu, baina biktima batzuk bakarrik". Tesi horrek, erabat alde bakarrekoa eta arbitrarioa izateaz gainera, ez dio ekarpenik egiten bakerako hezkuntzari eta horrentzat kaltegarria ere bada. Beraz, bakerako hezi nahi duen plangintzak, elkarbizitza anitza sustatu nahi duen plangintzak, biktima eta sufrimendu guztiak aitortzea izan behar du abiapuntu. Eta horrenbestez, exijitu ahal den gutxienekoa exijitzen dugu: gobernuak jaso dezala arlo honetan orain arte adostu den guztia, eta plangintza honetako biktimen unitatean biktima guztiak har ditzala aintzat. Hori egin ezean, bakea helburu duen plangintza baten aurrean baino gehiago, helburu politiko argia duen plangintza baten aurrean egongo ginateke: ETAk eragindakoak ez diren sufrimendu guztiak euskal errealitatetik ezabatzea eta ideia oker hori ikasgeletara eramatea. Horri doktrinamendu politikoa esaten zaio, eta ez gaude horrelakoak onartzeko prest.

## Funtsezko zatia: printzipio eta helburuak berrikustea

### Biktimen zentraltasuna eta presentzia onartzea, indarkeria terroristari legitimazioa kentzean

Biktimek planean izan behar duten zentraltasuna arrazoitzeko, lehenengo puntuan jasotzen du aurreko planean herabeegi jarduten zuela biktimenganako, zeren, gobernuaren iritziz, etorkizunari begira biktimen testigantzak ez dezake hezkuntza-eginkzun hutsa izan, "*puesto que en el proceso educativo las víctimas tienen que encontrar también aspectos de reconocimiento y la reparación que se les deben*"(¿?) edo "*la dimensión de reconocimiento debido a las víctimas tendrá que acomodarse a la autenticidad de los procesos educativos,*" Adin txikiko ikasleek biktimei errekonozimendua zor dietela esaten ari da gobernua? Ez da nahikoa erakundeen errekonozimenduarekin eta errekonozimendu sozialarekin; orain errekonozimendua geletara ere eraman beharra dago! Benetan, ez gaitu harritzen aldaketa horrek guraso eta irakasleengan beldurra eragin izanak. Noraino iristeko asmoa dauka gobernuak?

Baina harago ere badoa, esaten duenean soilik biktimen zentraltasunak "*bermatuko duela elkarbizitza demokratikoa*", baina zergatik azaldu barik. Amaitu gabeko esaldiz osotutako laburpena da, inolako haririk ez daukatenak planean "*biktimen zentraltasuna*" deitzen duten hori justifikatzeko. Azken baten geletara euren testigantza zuzena eramatea baino ez da, hezkuntza helburuetatik harago doazen helburuekin, atal horrek berak beren beregi jasotzen duen moduan. Uste dugu testutik kendu egin behar dela, eta zegoenean utzi: hau da, biktimen testigantzek helburu huts-hutsean didaktikoak izan ditzatela.

**Terrorismoaren biktimei behar duten garrantzia ematea**

Sarrerari buruz ari ginela ere esaten genuen, eta atal horretan atzera ere egiten da, berriro ere hierarkizatzen dira biktimak, jasan duten indarkeriaren arabera. Gainera, hierarkizazio hori justifikatzen saiatzen da argumentu benetan harrigarriekin, hala nola, "*puede posibilitar un acercamiento más pleno y positivo al conjunto de expresiones de violencia*"! Eta argumentu horri buelta ematen badiogu? Testu osoan zehar atzematen da zein gaitza zaien orokorra den plan batean zentraltasuna biktima batzuei baino ez zaiela eman behar arrazoitzea. Are okerragoa dena, euren nahia justifikatzeko egiatik batere ez duen esaldi bat erabiltzen dute: "*no ha existido para las víctimas del terrorismo un espacio, y lo que se contempla en el plan para ellas es manifiestamente insuficiente*". Lekua egon da, 600 ikaslerekin esperientzia pilotuak egin dira, emaitza oso onak eman duten esperientziak egin dira, biktimenganako enpatia sorrarazi duten esperientziak. Beraz, zertan zen ez nahikoa orain artekoa? Gobernuak adierazi beharra dauka orain artekoaren zein zati ez duen gustuko, zehazki zer den aldatu nahi duena. Eta ez du egiten, bene-benetan nahi duen bakarra delako biktimen elkarteren batek, PPk eta PSEk totem bihurtu dutena birformulazio honetan sartzea: biktimak eurak ikasgeletan izatea.

Onartezina da **eskolaren beraren hezkuntza lanetik harago doan egitekoa** agindu nahi izatea. Biktimen presentzia zuzena hezkuntza-helburuekin justifikatzen hasten da (baina ematen dituen argumentuak ez dira ez pedagogikoak ezta zientifikoak ere) eta eskolari eta hezitzaileei exijitzeraino iristen da: "*a las razones precedentes para la presencia de las víctimas hay que añadir ahora, para la presencia de las víctimas del terrorismo, la de la colaboración de la educación en el avance hacia un auténtico consenso social de condena sin paliativos de la violencia terrorista*". Eskolari exijitzen zaio "benetako" kontsentsu soziala, gizarteak berak oraindik ez duenean hori lortzerik izan. Eta, gainera, horretarako ez da giza eskubideen defentsara eta indarkeria errefusatzera mugatzen, baizik eta, harago joanez, erakundeen legitimazioa, edo biktima batzuk gailentzea ere jasotzen du. Horrek, *de facto* oztopatzen du gutxieneko kontsentsua arlo horretan. Oraintsuko historiaren eta gure herrian dagoen sufrimenduaren argazki zehatz bat eraman nahi da eskoletara eta, gainera, irakasleek parte har dezatela kontakizun zehatz horren transmisioan: terrorismoaren biktimen zentraltasuna izanda, beste terrorismoen biktimak aipatu ere egin gabe, are gutxiago frankismoaren biktimak, poliziaren gehiegikeriak eragindako biktimak edo bestelako indarkeriak eragindako biktimak, hala nola, genero indarkeriaren biktimak eta indarkeria arrazista.

Eta hori guztia hezkuntza komunitatea kontuan izan gabe egin da; are gehiago, hori eskatzen zaion heinean testu osoan zehar profesionalengan sortutako dudaren itzala

igartzen da. Onartezina da hori izatea gobernu batek eskoletako irakasleekiko duen jarrera.

**Terrorismoari legitimazioa kentzeko helburua behar bezala nabarmentzea**

Dokumentuak berak aitortzen du terrorismoaren deslegitimazioa aurreko dokumentuan ere badatorrela jasota, baina gero ekimen zehatzetan helburuaren itxuragabetzea ematen dela. Esaten ez duena da zergatik eta non gertatzen den hori. Ez da zilegi planteatzea planaren birformulazioa, ustezko gabezietako bat horixe dela esanez, baina arazoa zein den esan gabe edo aurreko planaren zein zati edo zein unitate didaktikok egiten duen kale esan gabe eta, beraz, zer aldatu nahi den esan gabe. Exijitzen duguna da argiki adieraztea egin nahi den hori, bestela "ni gehiago" propaganda ariketa huts baten aurrean geundekeelako, horren antza baitauka dagoeneko aldaketaren "totem" bihurtu duten kontzeptu hain erabili horri dagokionez.

Eta sail berean profesionalen lanaren gaineko kezka sortu nahian jarraitzen du testuak, tonu paternalista erabilita. "*una condición fundamental es que se asuma correctamente lo que significa la neutralidad de los educadores ante las opiniones diversas de los alumnos que afectan a la ética*". Baina, gobernuak benetan sinesten du urteetan giza eskubideetan, etika eta antzekoetan formatu diren irakasle guztiek ez dutela jakin izan nola jardun gobernu hau iritsi den arte? Tonu paternalak, mesianikoa izaterainoko horrek, harridura eragiten du.

**Oro har biktimen eta bereziki, terrorismoaren biktimen presentzia zuzen eta aktiboaren aldeko apustua egitea eta horien presentzia fisikoari ateak irekitzea**

Puntu honetan azaltzen da gobernuak egin nahi duen benetako aldaketa bakarra zein den. Tituluak biktimen zuzeneko presentzia era orokorrean aipatzen badu ere, gero garatzen den testuak bakar-bakarrik terrorismoaren biktimez hitz egiten du, agerian utziz berriro ere, biktimen arteko mailakatzea, gure ikuspegiko bake plan batean erabat onartezina dena. Horixe justifikatzeko aipatzen dena da aurreko planak errefusatu egiten duela espresuki presentzia fisikoa, baina hori faltsua da. Egia dena da unitate didaktikoan bestelako modalitateen alde egiten dela, ikuspegi pedagogiko batetik hala erabaki zelako, egokiagoa delako helburu bera lortzeko: biktimenganako enpatia.

Hala ere, birformulazioan ez da aipatzen arrazoi pedagogiko-zientifiko bakar bat ere, ezta ere ebaluazioren bat ere, formula horren alde egitea aholkatzen duenik. Soil-soilik iritzi batzuk ematen ditu argumentu "moral eta pedagogiko" modura erabiltzen direnak, gauza bera balitza moduan, baina inongo ikerketa zientifikotan oinarritu barik, are gutxiago hezkuntza komunitatearekin elkarrizketa eta kontsentsua bilatuz. Eredu hori gehitzeko beharra baldin badago gobernuak arrazoitu beharra dauka, argumentu soilik pedagogikoekin, gaur gaurkoz egiten ez duena.

Atal horren amaieran, jarraitzeko inongo etenik gabe, zera gehitzen da: "no solo no hay que vetar a priori por pedagógicamente contraproducente la presencia física de las víctimas del terrorismo, sino que hay que estimularla." Esaten ez duena da, zergatik. Eta, jarraitzen du, "ahora bien, como esta presencia tiene que hacerse en el marco educativo, es lógico que se le pida se que se acomode a lo que este marco exige". Hau da, buelta ematen zaio auziari. Helburua ez da bakean heztea; helburua, biktimek

geletan presentzia izatea da helburua. Eta gero ikusiko dugu nola egokitzen dugun hori helburu pedagogikoetara. Eta larriena da ez dela esaten nola egokitzen den helburu politikoa hezkuntza helburuekin.

Beraz, **helburu politikoekin betetzeko eskola "erabiltzeko" saiakera bat dago,** aldaketaren **"totem" bihurtu dena praktikara eramateko**, eta hezkuntza helburuak, irakasleak eta ikasleak egokitu beharko dira aldaketa ikustarazteko estrategiara. Benetan ikaragarria da eskola helburu politikoak lortzeko erabilera lotsagabe hori eta, gainera, iritzi publikora era horretan adieraztea, hezkuntza komunitatearekin hitz erdi bat egin gabe.

**Eragileak, antolamendua eta kudeaketak**

Oso deigarria da hezkuntza formalaren garrantzia azpimarratzeaz hitz egitea, baina hezkuntza komunitateari ez bidali izana birformulazio hori, hedabideetara zabaldu aurretik. Kudeaketarako eta koordinaziorako bi organo mantenduko direla aipatzea —erakunde artekoa eta aholku kontseilua—, eta hala ere azken hori joan zen astera arte ez elkartu izana gai honetaz hitz egiteko eta soilik ostegunera arteko epea eman izana ekarpenak egiteko. Ez da behar besteko komunikaziorik egon ez hezkuntza komunitatearekin ezta arlo horretan ari diren elkarteekin ere. Gobernuak zuzendu beharra dauka hori.

**3. Eranskina.Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduera-programa**

Esaten den lehenengo gauza da aldatu egingo dela Herritartasunerako Curriculuma; martxoaren 30eko gobernu kontseiluak jada onartu zuen aldaketa. Baina oraindik ez dugu ezagutzen, eta ez digute birformulazioarekin batera eman. Aurreratzen zaigun bakarra zera da: "*la deslegitimación del terrorismo y la centralidad del papel de las víctimas*" serán incluidos y que se "*definen nuevas acciones específicas y transforma acciones que en el Plan anterior figuraban como experimentales, en elementos centrales que se incorporan con carácter general a los contenidos educativos de todo el alumnado*".

Esaten denez, kontuan izango diren edukiak zehazten dira, "*deja margen a la autonomía de los centros*" esanez eta indarrean hurrengo ikasturtean sartuko dela esanez. Baina zehazki ez dakigu curriculumean jasotzen dena eta, batez ere, zein den helburu horiek lotzeko zehazten den ibilbide pedagogikoa, ez eta zein helburu pedagogikorekin lan egiten den ere. Beraz, planaren birformulazioak ez du argitzen nola gauzatu nahi duten euren helburu nagusiena, hau da, biktimek presentzia zuzena izatea eskoetan. Beraz, erantzunik gabe uzten ditu hainbeste aldiz egin ditugun galderak, gobernuak hedabideetara eraman bai, baina erakundeetara ekarri ez duen auzia.

Gainera, dekretu bidez onartu da modifikazioa, legebiltzarreko beste taldeek, erakundeek eta foroan ordezkaritza duten elkarteek ekarpenak egiteko aukerarik izan gabe. Beraz, zertarako irekitzen da orain ekarpenak egiteko epea, modifikazioak jada dekretu bidez onartu baldin badira?

Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak esan du gobernuak "ahalik eta kontsentsurik zabalena bilatzen duela", baina ihes egin dio beste honek ere: "ez dutela inongo

modifikaziorik jasoko, oraingoz”. Hortaz, “biktimen dekretazoaren” aurrean gaude, ez kontsentsu politikorik, ez hezkuntza arlokorik ezta gizartearen kontsentsurik ere ez duena. Jarrera erabat arduragabea iruditzen zaigu horrela jardutea hain sentsiblea den gai batekin, eta ez dugu inondik inora onartuko.

Gainera, aurreko planarekin alderatuta, ez da **inongo esperientzia piloturik** aurreikusten; modifikazioak hurrengo ikasturtetik aurrera ezarri direla esaten da, ebaluazioak egiteko baliagarriak diren probarik egin gabe. Bide batez, Eusko Jaurlaritzak argitu egin beharko luke zein ekintza egin diren ikasturte honetan zehar, gai honen inguruan. Aurreko bi ikasturteetan bi esperientzia pilotu gauzatu ziren, 6 ikastetxetan, baina aurten ez dakigu gai honetan zerbait egin den, hedabideetan behin eta berriz birformulazioa egingo zela esatetik harago.

**Formazioa**ri dagokionez, deigarria da aldaketak hurrengo ikasturtean egin nahi badira zer dela eta aurreikusten diren hain errekurtso gutxi formaziorako; inondik inora ez dira nahikoak modu orokor batean ezartzeko. Gauza bera esan daiteke baliabideen Unitateaz; izan ere, lan horretan pertsona bi jartzea aurreikusten du, aurreko legegintzaldian, eta esperientzia pilotuak gauzatzeko 30etik gora lagunek jardun zutenean. Benetan orokortu gura da esperientzia?

Material didaktikoari dagokionez, deigarria da gobernuak oraindik, urtebetez aldaketaren premian tematu eta gero, dagoeneko badauden materialen “eguneratzeaz” hitz egiten jarraitzea. Zergatik ez dira, planaren modifikazioaren osagarri, dagoeneko existitzen diren unitate didaktikoen “eguneratzeak” ere aurkeztu? Zertan aritu da gobernua urtebete honetan zehar? Aurreko legegintzaldian planaren eta unitate didaktikoaren garapena batera egin ziren; are gehiago, plana bera onartu aurretik esperientzia pilotu bat egin zen. Beraz, exijitzeko modukoa da nola zehaztea. Hau da, curriculumaren bidez egin nahi den planaren birformulazioaren garapenaren parte metodologikoa, bai eta unitate didaktikoena ere. Salagarria da urtebetez zarata ateratzen jardun ondoren, gaur gaurkoz zehaztapen bakar bat bera ere ez izatea gai horri dagokionez.

Azkenik, biktimen errekonozimenduaren auzia planteatzen da. Proposatzen dena da, funtsezko zatian aurreratzen zenez, biktimen errekonozimenduan ikastetxeek ere parte hartzea, esklusiboki terrorismoaren biktimen errekonozimenduan. Baina, horretan sakonduz, helburu hori eskolatik ere ateratzen da, ikastetxeei proposatzen baitzaie, euren gunetik kanpo ere, helburu horretan parte har dezatela erakundeekin batera. Zer ikusi dauka horrek helburu pedagogikoekin?

Ekintza horiek guztiek agerian uzten dute jada aurreratu genuena, hau da, eskola instrumentu bat besterik ez dela gobernuarentzat, ez baina bakean hezteko, baizik eta helburu maximo bat gauzatzeko: terrorismoaren biktimak, batez ETAren biktimak, herri honen sufrimenduaren gunean ezartzea, eta, aldi berean, bestelako giza eskubideen urraketen biktimak ezabatzea edo bigarren plano batera eramatea. Era horretan, alde bakarreko diagnostikoa islatzen dute, kontaketa historiko partziala eraikitzen eta transmititzen dute, kontsentsu politiko eta sozialik ez duena. Laburbilduz, eskola helburu politikoekin erabiltzeko asmoa.

aralar

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# ALEGACIONES A LA "REFORFUMACIÓN DEL PLAN VASCO DE EDUCACIÓN PARA LA PAZ Y LOS DERECHOS HUMANOS" (2008-20011)

## 0. Consideraciones generales

- **El documento presentado no es un "plan de educación", sino un documento "puramente político".** Un documento político de principios anti-ETA, y pro-constitucional, que reduce las víctimas a víctimas de ETA, y que además no aporta nada sobre cómo debe traducirse en términos de política educativa. Falta una traducción de la visión política, que es expresa y cruda, a un documento de política educativa.

- **No queda claro, si este documento de 38 páginas sustituye al plan en su conjunto o a una parte**. Se habla de relectura, pero no sabemos si el anterior documento sigue vigente en relación a todo el resto de cuestiones, más allá de la unidad de víctimas. El Gobierno tiene que aclarar con exactitud que queda en píe del plan anterior y qué no, y por tanto, exigimos un plan CONSOLIDADO, que en un solo documento, permita acceder al plan completo. Después de un año de gobierno presentar 38 folios de básicamente discurso político, no nos parece de recibo. No es riguroso, ni está a la altura de lo que un gobierno debe presentar cuando presenta un plan.

## 1. Introducción

**La parte introductoria rompe el nimio espacio de consenso que existe en relación a las víctimas, porque pasa de la defensa de los derechos humanos y el rechazo de la violencia a incluir un diagnóstico político parcial y de parte de la situación que vivimos en nuestro país**. Por tanto un mal inicio. Cualquier modificación del plan para la educación para la paz debería partir del mayor consenso posible, y para ello es imprescindible evitar toda valoración política y centrarnos en lo pre-político: en la defensa de los Derechos Humanos y el rechazo de todo tipo de violencia.

**No entendemos porqué se enmarca "el plan para la educación para la paz" en la lucha contra el terrorismo**, cuando la educación para la paz es algo mucho más amplio que tiene que superar esa visión restringida que es permanente y se repite a lo largo de todo el texto.

**Hay una tesis muy peligrosa y errónea, con una intencionalidad política clara, vincula de forma directa el terrorismo a la visión crítica de las instituciones**. Algo que debe ser retirado, porque no es cierto, y además, nada tiene que ver con la educación para la paz. Es más propio de un gobierno que pretende el adoctrinamiento político que quién pretende educar para la paz.

Frases como “*es necesario recalcar que los derechos y libertades no existen, o son mera reivindicación, si no están ancladas en el Derecho, el respeto a la Ley y la defensa de las instituciones democráticas*” o “*introduce como novedad singular, convirtiéndola además en principio rector del mismo, la idea de que el no reconocimiento de las instituciones democráticas (…) abre el camino a las posiciones totalitarias justificadoras de la violencia terrorista,*” no tienen cabida en un plan de educación para la paz.

**Tampoco compartimos la visión de las víctimas como el mayor símbolo de la democracia**, la idea reiterada de dotarles de un carácter político. Frases como “*el Gobierno está convencido de que la memoria de las víctimas del terrorismo constituye la defensa permanente de la tolerancia y la pluralidad política de la sociedad vasca, pues fueron asesinadas por representar de una forma u otra precisamente esa pluralidad, porque no encajaban en la visión uniforme y homogénea de los asesinos…*” Esto que en el documento se circunscribe exclusivamente a las víctimas de ETA, no es más que una valoración política, que no es compartida más que por los partidos constitucionalistas. El inicio de la frase lo deja claro, “el gobierno cree”, es una creencia, una opinión política, no un suelo común.

Ya desde la introducción hay una reiterada aseveración **de la aportación que supuestamente harían las víctimas con su presencia directa** en las aulas a la convivencia de nuestro país. Unas **aseveraciones nada fundadas, ni en criterios científicos, ni pedagógicos**. Son simplemente opiniones vertidas al respecto, eso si con vehemencia, intentando de esta manera convertir en verdad objetiva lo que simplemente es un deseo político.

Y por último, **la obsesión de dar la centralidad a las víctimas del terrorismo** (básicamente ETA. En todo el texto no hay ninguna mención a ningún otro grupo armado, a pesar de que están reconocidas como víctimas, las víctimas de todos los grupos armados), **deja fuera del plan al resto de las víctimas** de vulneraciones de derechos humanos por motivaciones políticas y deja en un segundo lugar el quebrantamiento de otros derechos fundamentales. “*la sensibilidad especial que hemos ido atesorando con el tiempo respecto a la violencia terrorista, nos permite juzgar con mayor precisión el quebrantamiento de otros derechos fundamentales*” o “*la centralidad de las víctimas permite confrontar los efectos de la violencia terrorista a través de la aproximación y empatía con sus víctimas, posibilitando con ello una aproximación más certera y efectiva a todas las expresiones de violencia*”. Es decir, primero las víctimas de ETA y luego todas las demás de vulneraciones de diferentes expresiones de violencia. No compartimos en absoluto este escalonamiento del sufrimiento, y nos parece inaceptable que éste sea el objetivo principal de un plan de “Educación para la paz”.

## 2. Exposición de motivos

En la justificación de porqué se acomete esta reformulación, se menciona en primer lugar, **la evaluación** que contemplaba el mismo plan, y que debía realizarse a un año de ponerse en marcha.

Sin embargo, no consta en qué medida han sido tomados en cuenta las distintas evaluaciones, pues no aparecen en el documento. Se dice que la evaluación ha llevado al Gobierno a los cambios, pero no dicen en base a qué. No se menciona la valoración realizada del plan en su conjunto por el *Kualitate Lantaldea*. Tampoco se mencionan las evaluaciones externas de los programas o unidades didácticas que posibilitaron la experiencia de testimonios de víctimas en las aulas. Una evaluación muy positiva y satisfactoria, que entre otras recoge expresamente que *”las sesiones han generado una tendencia a comprender en profundidad el concepto de empatía y que la violencia no debe ser respondida con violencia”; o* destacan a su vez la importancia de *“que se haya hablado de las víctimas del modo que se ha hecho, es decir, buscando la empatía…”.*

Sin embargo, en la página 32 del documento de reformulación se asegura que la “*unidad resulta incompleta, imprecisa y por lo que se procede a su modificación*”. ¿Por qué tipo de razones pedagógicas y no políticas? Y lo que todavía es más grave, **no se aclara qué tipo de modificaciones va a tener, por lo que a día de hoy, siendo el de la presencia directa en las aulas la modificación sustancial del plan, no sabemos cómo se pretende cumplir con el objetivo y en base a qué criterios pedagógicos se modifica**. El Gobierno debería de aclarar de qué evaluación está hablando, y si ha realizado una evaluación propia debería explicitar cuál es, el autor, y cuáles son sus conclusiones.. La cuestión es que no hay ninguna evaluación, ni criterios pedagógicos que justifiquen esta reformulación ni las modificaciones en las unidades didácticas.

Se citan a continuación lo que, según el gobierno, han sido los **elemento novedosos del contexto** que a la hora de justificar la reformulación. Sin embargo, **olvida dos hitos importantes en materia de derechos humanos y víctimas: la presentación del “Informe de Víctimas de violaciones de derechos humanos derivados de la violencia de motivación política” presentada por la anterior Dirección de derechos humanos y la aprobación por unanimidad en la comisión de derechos humanos el 22 de diciembre de 2009 para continuar con la labor pendiente en esta matera y remitir al cámara medidas para su resarcimiento**. Y obvia estos documentos porque quiere dejarlos fuera de este plan, y en concreto, quiere hacerlos invisibles en las aulas. Es decir, “victimas en las aulas sí, pero solo unas”. Esta tesis además de ser absolutamente parcial y arbitraria, no solo no aporta nada a la educación para la paz, sino que es contraproducente. Por tanto, un plan que pretende educar para la paz, facilitar la convivencia plural, tiene que partir del reconocimiento de todas las víctimas y de todos los sufrimientos. Y por tanto, exigimos lo mínimo exigible: que el gobierno incluya todos los acuerdos que se han ido adoptando en esta materia e incluya a todas las víctimas en la unidad de víctimas de este plan. De lo contrario, más que ante un plan de paz, estaríamos ante un plan con un objetivo político claro: borrar de la realidad vasca cualquier tipo de sufrimiento que no sea el generado por ETA y trasladar esta idea sesgada a las aulas. Esto simple y llanamente se llama adoctrinamiento político que no vamos a tolerar.

# 3. Parte sustantiva: revisión de principios y objetivos

**Asumir la centralidad y presencia de las víctimas en la deslegitimación de la violencia**

En su primer punto para justificar **la centralidad de las víctimas** en el plan, argumenta que el plan anterior se expresa con demasiada timidez en relación a las víctimas, porque según el Gobierno el testimonio de las víctimas no pueden tener solo un papel educativo de cara al futuro, "*puesto que en el proceso educativo las víctimas tienen que encontrar también aspectos de reconocimiento y la reparación que se les deben*"(¿?) o "*la dimensión de reconocimiento debido a las víctimas tendrá que acomodarse a la autenticidad de los procesos educativos,*" ¿Está el gobierno planteando que los alumnos, menores, les deben el reconocimiento a las víctimas? ¡No es suficiente con los reconocimientos institucionales y sociales, ahora hay que trasladar también este reconocimiento a las aulas! Realmente, no nos extraña el terror que está generando esta modificación en madres y padres y en el profesorado. ¿Hasta donde pretende llegar este gobierno?

Pero incluso va más allá cuando dice que sólo la centralidad de las víctimas "*garantizará la convivencia democrática*", sin embargo no explica porqué. Es un compendio de frases incompletas, inconexas, que no guardan el mínimo hilo argumental para justificar lo que ellos denominan "*la centralidad de las víctimas*" en el plan, que en definitiva se reduce a llevar su testimonio directo a las aulas, con objetivos que van más allá de los objetivos educativos, como recoge expresamente este apartado. Algo que creemos que hay que retirar del texto y dejarlo como estaba: es decir que los testimonios de las víctimas tengan objetivos exclusivamente educativos.

**Dar la relevancia que se precisa a las víctimas del terrorismo**

Lo apuntábamos en relación a la introducción, y en este apartado vuelve a **realizarse una jerarquización de las víctimas de distinto tipo de violencia**. Además, trata de justificar esta jerarquización incluso con argumentos tan peregrinos como el de decir que "*puede posibilitar un acercamiento más pleno y positivo al conjunto de expresiones de violencia*"! (¿Le damos la vuelta a este argumento? La presencia de las víctimas de vulneración de derechos humanos por abusos policiales puede posibilitar un acercamiento a las víctimas del terrorismo?). **En todo el texto se trasluce la dificultad que tienen para justificar la centralidad de unas víctimas y no de otras en un plan que es general**. Y lo que es peor, para justificar su empeño recurren a una frase que falta a la verdad: "*no ha existido para las víctimas del terrorismo un espacio, y lo que se contempla en el plan para ellas es manifiestamente insuficiente*". Si ha existido espacio, se han hecho experiencias piloto con 600 alumnos, experiencias que han dado muy buenos resultados, que han generado empatía hacia las víctimas. Por tanto, ¿En qué era insuficiente el plan? El gobierno tiene que explicitar cuál es la parte del anterior plan que no le gusta, qué es lo que quiere cambiar en concreto. Y no lo hace, porque en realidad lo único que quieren es insertar lo que alguna asociación de víctimas, y el PP y el PSE han convertido en tótem y en el símbolo del "cambio": la presencia directa de las víctimas.

Es inaceptable que trate de dar **a la escuela un quehacer que va más allá de la labor educativa en esta materia**. Se empieza justificando la necesidad de la presencia directa de las víctimas con objetivos educativos (con argumentos nada pedagógicos ni científicos) y se **desliza hasta exigirle a la escuela y a los educadores su participación en el reconocimiento de las víctimas y en objetivos políticos**: “ *a las razones precedentes para la presencia de las víctimas hay que añadir ahora, para la presencia de las víctimas del terrorismo, la de la colaboración de la educación en el avance hacia un auténtico consenso social de condena sin paliativos de la violencia terrorista*.” Se exige a la escuela el “auténtico” consenso social, cuando la propia sociedad todavía no ha sido capaz de llegar a ello. Y además, para ello no se circunscriben a la defensa de los Derechos Humanos y el rechazo de la violencia, sino que van mucho más allá, incluyendo la legitimación de las instituciones, o la prevalencia de algunas víctimas. Algo que imposibilita de facto cualquier consenso mínimo en esta materia.
Se quiere trasladar un relato concreto de la historia reciente y del sufrimiento en nuestro país a las escuelas, y que además, el profesorado participe en transmitir ese relato concreto: donde las víctimas del terrorismo ocupan la centralidad, donde no se menciona siquiera a otras víctimas de otros terrorismos, ni que decir a las víctimas del franquismo, de los abusos policiales y a las víctimas de otro tipo de violencias, como la violencia de género y la violencia racial.

Pero es que además se hace esto sin contar con la comunidad educativa, es más, al tiempo que se le pide esto planea a lo largo de todo el **texto la sombra de la duda sobre los profesionales de la educación**. Intolerable que esta sea la actitud de un gobierno hacia las y los profesores de la escuela.

**Resaltar como se merece el objetivo de deslegitimación del terrorismo**

El mismo documento reconoce que la **deslegitimación del terrorismo aparece formulado en el documento anterior**, pero luego dice que en las iniciativas concretas se produce un desdibujamiento del objetivo. Lo que no dice porqué y dónde. No es recibo que se plantee una reformulación de un plan, en el que una de las supuestas carencias es ésta y sin embargo luego no se diga cuál es el problema, qué parte del anterior plan o de las unidades didácticas falla y por tanto, qué es lo que se va a modificar. Exigimos que se clarifique con exactitud, de lo contrario estaríamos ante un ejercicio de pura propaganda de “yo más”, que es lo que parece que hay en realidad en relación a este manido concepto que lo han convertido en “tótem” del cambio.

Y también en este apartado sigue sembrando la duda respecto a la labor de los profesionales, con un tono paternalista. “*una condición fundamental es que se asuma correctamente lo que significa la neutralidad de los educadores ante las opiniones diversas de los alumnos que afectan a la ética*”. Pero**, ¿realmente este gobierno se cree que todos los profesores que se han formado durante años en materia de derechos humanos, ética, etc,. no saben cómo tienen que actuar hasta que llega este gobierno? El tono paternal, que raya incluso el mesiánico, provoca estupor**.

**Apostar por una presencia directa y activa de las victimas en general, y de las víctimas del terrorismo en particular, abierta a su presencia física.**

Es en este punto cuando se aclara cuál es el único cambio real que quiere introducir el gobierno. **Aunque el título hable de la presencia directa de las víctimas en general, en todo el desarrollo posterior sólo se habla de las víctimas del terrorismo**, dejando en evidencia nuevamente, la jerarquización entre las víctimas, algo que desde nuestro punto de vista es inaceptable en un plan de paz.
Para su justificación señala que en el plan anterior se rechaza expresamente la modalidad de presencia física, algo que no es cierto. Lo que sí es cierto es que en la unidad didáctica se apuesta por otro tipo de modalidades que, desde un punto de vista pedagógico, han sido elegidas por más adecuadas y oportunas para trabar el mismo objetivo: la empatía hacia las víctimas.

Sin embargo, **en la reformulación no se menciona ni una sola razón pedagógica-científica, ni siquiera ninguna evaluación que aconseje apostar por esta fórmula**. Simplemente lanza unas opiniones como argumentos "morales y pedagógicas" como si además fueran la misma cosa, pero sin basarse en ningún estudio científico, ni mucho menos diálogo y consenso con la comunidad educativa. Si se ve la necesidad de incluir esta modalidad **el gobierno debe argumentar con razones exclusivamente pedagógicas, algo que a día de hoy sigue sin hacerlo**.

Y al final de este apartado concluye, sin solución de continuidad: "*no solo no hay que vetar a priori por pedagógicamente contraproducente la presencia física de las víctimas del terrorismo, sino que hay que estimularla*." Lo que no dice es porqué. Y sigue, "*ahora bien, como esta presencia tiene que hacerse en el marco educativo, es lógico que se le pida se que se acomode a lo que este marco exige*". Es decir**, se da la vuelta a la cuestión. El objetivo no es educar para la paz, el objetivo en si mismo es la presencia de las víctimas en las aulas. Y luego ya veremos como lo adecuamos a los objetivos pedagógicos. Y lo más grave es que no dice como se traduce este objetivo político a objetivos educativos.**

**Por tanto, hay un intento de "utilizar" la escuela para cumplir fines políticos, para llevar a la práctica lo que se ha convertido en el "tótem" del cambio, y los objetivos educativos, los profesores, y los alumnos se tendrán que adecuar a esta estrategia de visualizar el cambio. Realmente es tremendo este descarado intento de usar la escuela con objetivos políticos, y además trasladarlo de esta manera a la opinión pública, sin siquiera haber hablado con la comunidad educativa.**

## 4. Actores, organización y gestión

Es altamente llamativo, y denunciable, que se hable de que se quiere acentuar la relevancia de la educación formal y sin embargo **no se haya transmitido esta reformulación a la comunidad educativa antes de lanzarlo a los medios de comunicación**.

Que se mencione que básicamente seguirá habiendo dos órganos de gestión y de coordinación, como la comisión interdepartamental y el consejo consultivo, y sin embargo, éste último no se haya reunido hasta esta semana para hablar de esta cuestión y se les haya dado de plazo hasta este jueves para hacer sus aportaciones. No ha habido la suficiente comunicación ni con la comunidad educativa, ni con las asociaciones que trabajan en esta materia. Algo que el gobierno debe corregir.

## 3. anexo. Programa de acciones del Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Lo primero que se dice es que se va ha modificado el **Curriculum para la Ciudadanía**, una modificación que fue aprobada por el Consejo de gobierno el 30 de marzo, pero que todavía no conocemos, y no se nos ha hecho llegar junto con esta reformulación. Lo único que se os adelanta es que "*la deslegitimación del terrorismo y la centralidad del papel de las víctimas*" serán incluidos y que se "*definen nuevas acciones específicas y transforma acciones que en el Plan anterior figuraban como experimentales, en elementos centrales que se incorporan con carácter general a los contenidos educativos de todo el alumnado*".

Dice que se marcan los contenidos a tratar, aunque "*deja margen a la autonomía de los centros*" y que entrará en vigor el curso siguiente. Pero no sabemos con exactitud qué es lo que se recoge en el curriculum, y sobre todo, cuál es el itinerario pedagógico que se marca para la consecución de esos objetivos y con qué objetivos pedagógicos se trabaja. Por tanto, **esta reformulación del plan no clarifica cómo quieren llevar a cabo su principal objetivo**: la presencia directa de las víctimas en las aulas. Y por tanto, deja sin respuesta todas aquellas preguntas que nos hemos hecho durante este largo año que el gobierno ha llevado una y otra vez esta cuestión a los medios de comunicación y no a las instituciones.

Además, se ha procedido a aprobar unas modificaciones por decreto, antes de que el resto de los grupos parlamentarios, las diversas instituciones o las asociaciones representadas en el foro podamos hacer aportaciones, por tanto, ¿para qué se abre este plazo de recogida de aportaciones, si las modificaciones ya han sido aprobadas por decreto?

A la portavoz del Gobierno Vasco ya se le escapó la intención real del gobierno: "*busca el mayor consenso, aunque en principio no plantea incorporar modificaciones*". Estamos, por tanto, ante un **"*decretazo de víctimas*", que no cuenta ni con el consenso político, ni educativo, ni social .Una actuación sumamente irresponsable en una materia tan sensible.**

Además, a diferencia del plan anterior, no plantea **ninguna experiencia piloto**, sino que se dice que las modificaciones se aplicarán a partir del curso que viene, sin pruebas previas que se puedan evaluar. Y de paso, el Gobierno Vasco también debería aclarar qué acciones se han llevado a cabo en esta materia durante este curso.

Los dos cursos anteriores se llevaron a la práctica dos experiencias pilotos en 6 escuelas, este año no sabemos si se ha hecho alguna acción en esta materia, más allá de reiterar a través de los medios de comunicación la necesidad de reformulación.

En relación a **la formación**, llama la atención que si las modificaciones se quieren llevar a las aulas el próximo curso, se planteen tan pocos recursos de formación, que en ningún caso son suficientes para una implantación general. Lo mismo se puede decir de la Unidad de recursos, ya que plantea dedicar dos personas a la gestión de esta unidad, cuando en la legislatura pasada para llevar a cabo las experiencias pilotos hubo que movilizar a más de 30 personas. ¿Realmente se quiere generalizar la experiencia?

En cuanto al **material didáctico**, es inaceptable que el gobierno hable todavía, después de estar un año insistiendo en la necesidad de cambios, de **la necesidad de "actualizar"** los materiales ya existentes. **¿Por qué no ha acompañado esta modificación del plan con las "actualizaciones" que pretende realizar en las unidades didácticas existentes?** ¿Qué ha estado haciendo durante todo este año? En la pasada legislatura el desarrollo del plan y de la unidad didáctica fue pareja, es más, hubo una primera experiencia piloto antes incluso de la aprobación del plan. Por tanto, es exigible conocer el detalle del cómo. Es decir, toda la parte metodológica del desarrollo de esta reformulación del plan, a través del curriculum como de las unidades didácticas.

Es denunciable que tras un año de ruido, a día de hoy no tengamos ninguna concreción al respecto.

Y por último, se plantea la cuestión del **reconocimiento de las víctimas**. Se propone, como ya se adelantaba en la parte sustantiva, la participación de los centros en el reconocimiento de las víctimas, exclusivamente de las víctimas del terrorismo**. Pero abundando en esta cuestión, este objetivo incluso sale de la escuela y se le propone a los centros colaborar fuera incluso de su espacio con las instituciones en la consecución de este objetivo. ¿Qué tiene esto que ver con objetivos pedagógicos?**

Estas actuaciones dejan en evidencia lo que ya adelantábamos, **la escuela es para este gobierno un instrumento más, no para educar para la paz, sino para llevar a cabo su objetivo máximo**: situar a las víctimas del terrorismo, sobre todo a las víctimas de ETA, en el centro del relato del sufrimiento de este país, y borrar o pasar a un segundo plano todas las víctimas de otras vulneraciones de derechos humanos. Y de esta manera, trasladar un diagnóstico de parte, construir y transmitir un relato histórico parcial que no cuenta con el consenso social y político. En definitiva, utilizar la escuela para fines políticos.